

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 400.000 euro emango ditu tokiko erakundeetan ekintzailtza bultzatzeko ekintzetarako

Laguntzak Mendialdeko, Erdialdeko, Estellerriko eta Erriberako ekintzaileentzako arreta-zerbitzuak finantzatzeko dira.

Martes, 22 de abril de 2014

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) tokiko erakundeei eta horien mendekoei edo horiei lotutakoei (partzuergoak, elkarteak edo fundazioak) zuzenduriko diru-laguntzen deialdia onetsi du. 396.200 euroko laguntzaren bidez, [Mendialdeko](#) (Nafarroako iparralde osoa), [Erdialdeko](#), [Estellerriko](#) eta [Erriberako](#) ekintzaileei babesa emateko zerbitzuak finantzatzeko dira.

Deialdiaren oinarriak gaurko, apirilak 22, NAO n argitaratu dira (77. zk.), eta datorren maiatzaren 23an amaituko da laguntzak eskatzeko epea.

Deialdia aipatutako Nafarroako eremuetako ekintzaileentzako arreta-zerbitzuak finantzatzeko baliatuko dira. Zerbitzuak honako jardura hauek edo batzuk barne hartuko ditu: inguruko negozio-aukerak aztertu eta identifikatzea, inguruko ekintzaileak identifikatu eta erakartzea, ekintzailtza sustatzeko sentsibilizazio- eta zabaltze-ekintzak gauzatu, ekintzaileentzako informazioa eta aholkularitza, ekintzailtzarako prestakuntza-ekintzak eta abian izandako lehen bi urteetan eratutako enpresa berrientzako babesa.

Deialdiak ezartzen duenaren arabera, erakunde bat baino ez da hautatuko eskualde bakoitzeko, eta enplegu- eta tokiko garapen-eragileak izan beharko ditu zerbitzuak eskaini ahal izateko. Deialdiaren bidez Mendialdeko eragile horien 5,5 lanaldi finantzatzeko dira, Erdialdeko eragileen 2,5 lanaldi, Estellerriko eragileen 2,5 lanaldi eta Erriberako eragileen 3,5 lanaldi (lanaldi osorako kontratatzen diren langileen urteko ordu kopurua da lanaldia). Diru-laguntza 28.300 eurokoa izango da urteko, lanaldi osorako kontratatzen den eragile bakoitzeko.

Eskualde bakoitzeko erakundea hautatzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: proiektuaren kalitate teknikoa (ordutegia eta arretarako egoitzak, eragileen trebakuntza eta curriculum, aztertzeko ereduaren eta ekintzaileentzako arretaren kalitatea, materiala eta giza baliabideak, eskainiko den zerbitzu kopurua), erakundearen esperientzia ekintzailtza bultzatzeko zerbitzuak ematean, erakundeak berak ere finantzatzea eta kalitate-ziurtagiriak.

Ekintzailtza Bultzatzeko Nafarroako Sareari atxikitzea

Bestalde, laguntza jaso dezaketen erakundeek bete beharreko baldintzak

izango dira [Ekintzailtza Bultzatzeko Nafarroako Sareari](#) atxikitzea eta sarearen barruan modu koordinatuan lan egitea, ekintzaileei babes osoa eman ahal izateko. Zerbitzuak eskualde osoan eskaintzea ere beste baldintza bat izango da.

Deialdi honek enplegu- eta tokiko garapen-eragileak kontratatzeke diru-laguntzen lehengo deialdia ordezkatzeko du, [Nafarroako I. Ekintzailtza Planera](#) egokitzeko; izan ere, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Ekintzailtza Bultzatzeko Nafarroako Sarea koordinatzeko egitekoa hartu du bere gain. Sare hori aurtengo urtarrilean sortu zen, eta helburua, kalitate-irizpide komunei jarraiki, Nafarroako hainbat eskualdetan ekintzailtza sustatzearekin erlazionaturako zerbitzuak eskaintzea da. Hau da sarearen inguruko informazioa biltzen duen webgunea: www.navarraemprende.com.

Gogorazi behar da honako erakunde hauek osatzen dutela une honetan sarea: Nafarroako Gobernua, CEIN enpresa publikoa, Iruñeko Udala, CEN, UGT, CCOO, Cederna-Garalur, TEDER elkarteak, Erdialdeko Partzuergoa eta EDER partzuergoa, baita sarearen erakunde kolaboratzaileek ere: Moderna Fundazioa, Nafarroa Ganbera, UPTA eta ANEL.